

Gobernantza Publiko eta Autogobernu

GOBERNUAK ONETSI DU LANGILE PUBLIKOEN SOLDATAREN % 100 ORDAINTZEA, ALDI BATERAKO EZINTASUNAREN LEHEN EGUNETIK

- Neurriak atzeraeraginezko ondorioak ditu, 2018ko irailaren 1etik, eta aurrekontuan 1,6 milioi euroko inpaktua du
- Eusko Jaurlaritzak, horrela, sindikatuei pasa den irailean [*Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean*](#) adierazitako konpromiso guztiak gauzatzen ditu

Gobernu Kontseiluak, gaurko bileran, aldi baterako ezintasunaren kasuan langile publikoen ordainsarien borondatezko hobekuntzak arautzen dituen dekretua onetsi du. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan lan egiten duten ia 90.000 pertsonak, **2018ko irailaren 1etik ondorioak izanik**, baja hartuz gero, honako hau jasoko dute: *“horren inguruan autonomia-erkidegoko administrazioko, erakunde autonomoetako, sektore publikoko partzuergoetako eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoetako eta horien mendeko sozietate publiko eta fundazio publikoetako langile publikoei aplikagarri zaizkien akordio, hitzarmen edo itunetan jaso diren osagarria edo ordainsariak”*.

Neurri horrek aurrekontuan, aurtan, **1.646.932 euroko** inpaktua du. Erabateko berme juridikoak eta aurrekontukoak ditu.

Eusko Jaurlaritzak, horrela, langile publikoen aldi baterako ezintasun-kasuetan hobekuntza boluntarioetan sei urtez izandako murrizketekin amaituko du. Zehazki, Espainiako Gobernuak *uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretua* onetsi zuenetik, zeinak baja-kasuan ordainsariei buruzko akordio, hitzarmen eta itun guztiak eten baitzituen.

KONPROMISOA ENPLEGU PUBLIKOAREKIN

Onespen horren bidez, Eusko Jaurlaritzak bete egiten du pasa den irailean [*Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean*](#) sindikatuei jakinarazitako konpromisoa. Aintzat hartu behar da, gainera, soldata % 1,75 igo berri dela eta Itzarrirako % 1eko ekarpenak onartu direla 2018rako.

Gobernanza Pública y Autogobierno

EL GOBIERNO APRUEBA ABONAR EL 100% DEL SUELDO DEL PERSONAL PÚBLICO DESDE EL PRIMER DÍA DE LA INCAPACIDAD TEMPORAL

- La medida, que tiene efectos retroactivos desde el 1 de setiembre de 2018, tiene un impacto presupuestarios de 1,6 millones de euros
- El Gobierno Vasco materializa, así, todos los compromisos trasladados a los sindicatos en la [Mesa General de la Función Pública](#) del pasado mes de setiembre

El Consejo de Gobierno ha aprobado, en su reunión de hoy, el decreto que regula las mejoras voluntarias de las retribuciones del personal público en caso de incapacidad temporal. Con **efectos del 1 de setiembre de 2018**, las casi 90.000 personas que trabajan en el Sector Público de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en caso de baja, percibirán *“el complemento o las retribuciones que, a este respecto, se encuentran contenidas en los acuerdos, en los convenios o en los pactos de aplicación a los empleados públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma, los organismos autónomos, consorcios del sector público y entes públicos de derecho privado, así como de las sociedades públicas y fundaciones públicas dependientes de aquella”*.

Esta medida tiene un impacto presupuestario, este año, de **1.646.932 euros**. Cuenta con plenas garantías jurídicas y presupuestarias.

El Gobierno Vasco pone fin, así, a seis años de restricciones en materia de mejoras voluntarias en caso de incapacidad temporal del personal público. En concreto, desde la aprobación, por parte del Gobierno español, del *Real Decreto 20/2012, de 13 de julio*, que suspendió todos los acuerdos, convenios y pactos sobre retribuciones en caso de baja.

COMPROMISO CON EL EMPLEO PÚBLICO

Con esta aprobación, el Gobierno Vasco da cumplimiento al compromiso trasladado a los sindicatos en la [Mesa General de la Función Pública](#) del pasado mes de setiembre. Se suma a la recién materializada subida salarial del 1,75% y de las aportaciones a Itzarri-EPSV hasta el 1%, para 2018.